

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

Koronabirusari aurre egiteko neurri zehatzak

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

SARS-CoV-2 sistemak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren eta egoera epidemiologikoaren bilakaera dela eta prebentzio neurri espezifikoak zehazten dituen Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren interpretazioa.

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, Zuzenean herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>



BILERA

Bildu gaitzke sei pertsona baino gehiago lanean?

Bai. Sei pertsona baino gehiagoko taldeetan egoteko mugatik kanpo geratzen dira **laneko, hezkuntzako eta erakundeetako jarduerak**. Nolanahi ere, segurtasun-neurri guztiak bete beharko dira; alegia, metro eta erdiko gutxieneko distantzia gordetzea eta maskararen derrigorrezko erabilera, une oro. Gainera, bilera-gela aireztatu behar da.

MUGIKORTASUNA

Bisita ditzakete aitona-amonek bilobak, udalerrri mugakideetan bizi ez diren kasuetan?

Ez dira “bisita” eta “zaintza” kontzeptuak nahastu behar. Familia-bisita bada, ezin da. Adingabea zaintzera joanez gero, bai, joan daitezke, Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren 2.2.e) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Domu Santu egunean, joan gaitzke mugakide ez diren udalerrietako hilerrietara?

Ez. Joan-etorriak ekidin behar dira.

Zer ulertzen da dela jarduera sozioekonomikoa?

Udalerrri mugakidean egin ohi diren jarduerak, eta 2. artikuluan jaso diren salbuespenen artean ez daudenak, esaterako: supermerkatua joatea, tindategira, jatetxera edo haurtzaindegira joatea, eta gure udalerrian bertan egin ditzakegun baina, hurbiltasunagatik eta irisgarritasunagatik, udalerrri mugakidean egitea komeni zaizkigun jarduera sozial eta/edo ekonomikoak.

Pisu bat dut alokatuta beste autonomia-erkidego batean eta giltzak batzera joan behar dut, errentariak etxea utziko baitu. Irten naiteke erkidegotik?

Jarduera hori atzeratzerik ez badago, ezinbesteko kasutzat jo daiteke.

Etxe bat erosteko prozesuan dauden eta zenbait udalerritan etxeak ikusi behar dituzten pertsonak jarrai dezakete etxeak ikusten?

Ez, atzeratu egin beharko dute jarduera hori.

Joan gaitzke autonomia-erkidego berean dagoen bigarren etxebizitzara?

Ez. Mugatuta dago mugikortasuna bizitoki dugun udalerrira.

Zer gertatzen da dagoeneko bidaiatzeko hegazkin-txartela erosi badugu? Baliogabetu egin behar dugu?

Bidaiaren motiboa aisia bada, bai, hala beharko luke. 2. artikuluan azaldu diren motiboetako beste edozein bada, hegaldiari eutsi lekioko.



Sar daitezke EAEn konfinatuta ez dauden erkidegoetako turistak?

2.2. artikuluan aurreikusten diren pertsonak baino ezingo dira sartu, eta behar bezala justifikatuta egon beharko dute

Atera dezakegu maskota 23:00ak ondoren?

Ezin dugu paseatzera atera. 1.2. artikuluan aurreikusten diren jarduerak baino ezin dira egin; maskotak direla eta, larrialdiko motiboren batengatik al baitariarenera eraman daitekeela jaso da.

Sar gaitzke udalerrri mugakidean, nahiz eta beste lurralde historiko batean egon? Eta beste autonomia-erkidego batean egonez gero?

Beste lurralde historiko batean egonez gero, bai, gainerako udalerrietan bete beharreko baldintza beretan. Ezin gara udalerrri mugakidean sartu baldin eta beste autonomia-erkidego batean bagaude; izan ere, mugatuta dago EAEtik irtetea, Errege Dekretuan ezarritako salbuespenetan izan ezik.

Zer jotzen da udalerrri mugakidetzat? Erreka bi udalerrrien artean badago, mugikortasuna posible da? (Adibidea: Erandio eta Bilbo edo Getxo eta Portugalete)

Bizileku dugun udalerrriaren ondoko udalerrria da; udalerrri mugakidera joateko zuzeneko bidea dugu, mugakide ez diren beste udalerrri batzuetatik igaro beharrik izan gabe.

Adibidea dela-eta, bai, baimenduta dago Erandio eta Bilbo arteko edo Getxo eta Portugalete arteko mugikortasuna.

Nola justifikatuko litzateke agintaritza baten aurrean joan-etorri baten motiboa adinekoen edo adingabeen zaintza dela?

Pertsona arduradunak emandako egiaztagiraren bidez; horretarako, familia-lotura frogatu beharko da eta zainduko den pertsonaren identifikazio-datuak eman beharko dira.

Gure udalerriko supermerkatua txikia da, eta, normalean, beste udalerrri bateko handiago batera joaten gara. Joan gaitzke?

Elikagaiak edo baimendutako beste produktu batzuk erosteko joan-etorriak bizitoki dugun udal-mugarrean edo udalerrri mugakideetan dauden merkataritza-establezimenduetara egin behar ditugu.

Bizitoki dugun udalerrian edo mugakidean ematen ez diren zerbitzu eta hornikuntzen kasuan, salbuespen gisa, bizitoki dugun udalerritik hurbilen dagoen azalera handiko saltoki batera edo antzeko batera joan ahalko gara.



Esaterako, Durangon bizi gara, eta ohiko ile-apaindegia Bilbon dugu. Joan gaitzke haraino?

Ez. Jarduera sozioekonomikoa udalerrri mugakideetan baino ezin da egin. Ile-apaindegia ez da Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusten den salbuespenetako bat.

OSTALARITZA

Zenbat pertsona eseri gaitzke jatetxe batean jaten edo taberna batean zerbait hartzen?

Bai barruan bai kanpoan gehienez sei pertsona batu ahalko gara mahaiko edo mahaien multzo bakoitzeko. Gutxienez 1,5 metroko distantzia gorde beharko da bezeroen artean edo bezero-taldeen artean, eta une oro egon beharko dute eserita.

Maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da une oro, kontsumitzeko unean bertan izan ezik.

Barruko edukiera, guztira, ezingo da % 50etik gorakoa izan. Ezingo da barran kontsumitu.

Ordutegiaren aldetiko muga bera da Euskadiko taberna eta jatetxe guztientzat?

Bai. Guztiek, salbuespenik gabe, 23:00ak baino lehen itxi beharko dute, eta ezingo dute 06:00ak baino lehen ireki. Neurri hori asteko egun guztietan aplikatuko da, jaiegunetan barne.

Erregai-zerbitzuguneetako eta gasolindegietako taberne eta jatetxeek ere 23:00ak baino lehen itxi beharko dute?

Ez, ordutegiaren aldetiko mugak jatetxe-zerbitzu horiek salbuesten ditu. Hala ere, ezingo dute alkoholik atera 23:00ak eta 06:00ak bitartean.

Ostalaritzako establezimendu bat badugu eta 23:00etan ixten badugu, itzul gaitzke etxera 23:00ak baino beranduago?

Bai. 1.2 puntuan aurreikusten diren salbuespenetan jaso da lan-motiboengatik edo artikulua horretan aurreikusten diren beste batzuegatik bide publikoetatik edo erabilera publikoko espazioetatik 23:00ak eta 06:00ak bitartean ibiltzeko aukera. Nolanahi ere, ordu-tarte horretan bide publikoan egoteko motiboa edo kausa egiaztatzeko gai izan beharko dugu, hala egiteko eskatzen badigute.

Egon daiteke jarduerarik ostalaritzako eta jatetxeko lokalen barruan, ezarritako orduetatik kanpo?

Bai. Baimenduta dago establezimenduaren barrualdean ostalaritzako langileek lokala prestatzeko lanak egiten jardutea, bai 23:00ak ondoren, bai 06:00ak baino



lehen. 23:00etatik aurrera ezingo da etxera banatzeko zerbitzurik bete, ez eta jasotzeko zerbitzurik ere.

Joka dezakegu zutik taberna batean dagoen makina batean?

Ez. Aulkian eserita egon beharko dugu.

% 50eko gehieneko edukierak gainditu dezake hoteletako gunekomunei (jangela, kafetegia etab.) aplikatzen zaien 30 pertsonaren kopurua?

Ez.

Segurtasun-distantziak berak dira lokalaren barruan eta aire zabaleko terrazan?

Bai. Gutxienez 1,5 metroko distantzia gorde beharko da bezeroen artean edo bezero-taldeen artean, eta une oro egon beharko dute eserita.

HOTEL, NEKAZARITZA-TURISMO, TURISMO-OSTATU ETA KANPINETAN

Har dezakete ostatu logela, etxe edo bungalow berean elkarren bizikide ez diren pertsona-taldeak?

Taldekatze eta bilerak sei pertsonakoak izan daitezke, gehienez, bizikide izan ezean. Gogorarazten da mugikortasuna udalerraren eta mugakideen artean baino ez dagoela baimenduta.

HEZKUNTZA-JARDUERA

Joan gaitzke ikastera bizitoki dugun udalerrian ez dagoen zentro batera? Nola justifikatuko dugu?

Egoera hori berariaz jaso da 2.2 artikuluan: Unibertsitate-, irakaskuntza- eta hezkuntza-zentroetara joatea, haur-hezkuntzako eskolak barne. Baliozkotzat eta nahikotzat jotzen den edozein dokumenturen bidez egiaztatu beharko da.

Joan gaitzke semea edo alaba batzera, gure udalerritik kanpo egiten den eskolaz kanpoko jarduera batera?

Bai, betiere behar bezala justifikatzen bada; dena den, ezingo gara helmugako udalerrian umea batzeko behar baino denbora gehiago egon. Mugikortasuna eta kontaktuak ahalik eta gehien murriztu behar ditugu.



ESTABLEZIMENDUAK, INSTALAZIOAK ETA LOKALAK.

Supermerkatuek edo elikagaien dendek sal dezakete alkohola 20:00etatik aurrera? Eta 20:00ak ondoren ixten badute?

20:00ak eta 08:00ak artean ezingo da alkoholik saldu, taberna eta jatetxeetan kontsumitu ezean. Era berean, ezin da bide publikoan kontsumitu, ostalaritza-zerbitzuei lotuta dauden terrazetan baino ez.

HIL-BEILAK ETA EHORZKETAK

Joan gaitezke bizitoki dugun udalerritik kanpo egiten den hileta, hil-beila edo ehorzketa batera? Eta autonomia-erkidegotik kanpora?

Ez, udalerrian bertan edo mugakideetan ez bada, eta honako atal honetan ezartzen diren neurriak bete beharko dira:

- Hil-beiletan, 30 pertsona batu ahalko dira, gehienez, aire zabaleko espazioetan, eta 6, espazio itxietan. Bertaratzen den pertsona-kopurua txikiagoa izanez gero, ezingo da baimendutako edukieraren % 50 gainditu.
- Hildakoaren ehorzketan edo haren errausketarako agurrean, 30 pertsona egon ahalko dira, gehienez, betiere espazio irekian egiten bada. Espazio itxian eginez gero, gehienez 10 pertsona batu ahalko dira, eta, nolana ere, pertsonen arteko distantzia gorde beharko da.
- Kasu guztietan erabili beharko da maskara.

Joan gaitezke Domu Santu egunean bizitoki dugun udalerritik kanpora dagoen hilerri batera? Eta autonomia-erkidegotik kanpora?

Ez. Kontaktuak ahalik eta gehien murriztu behar ditugu.

JARDUERA FISIKO AIRE ZABALEAN

Irten gaitezke ibiltzera edo perretxikotan taldean?

Jarduera fisikoa egin ahalko da aire zabalean, bakarka edo kolektiboan, gehienez sei pertsonako taldeetan, udalerraren edo udalerritik mugakidearen barruan.

KIROLA

Joan gaitezke taldean korrika egitera edo bizikletan ibiltzera?

Jarduera fisikoa egin ahalko da aire zabalean, bakarka edo kolektiboan, gehienez sei pertsonako taldeetan, udalerraren edo udalerritik mugakidearen barruan.



Aire zabaleko kirol-jardueraren (14. art.) eta jarduera fisikoaren (19. art.) artean bereizi behar dugu. Aire zabaleko jarduera fisikoak kaletik edo ingurune naturaletik paseatzea barne hartzen du.

Egin dezakegu kirola taldean, espazio itxietan?

Ez, kirola bakarka baino ezingo da egin. Gimnasioetan programatutako ikastaroak edo jarduerak salbu; haietan, maskara erabili beharko da.

Taldeko klaseetan, sei parte-hartzaile egon ahalko dira, gehienez.

Entrena dezakegu gure taldearekin eta partidak jokatu?

Baimenduta daude lehiaketa profesionalean edo erdi profesionalean dauden taldeen kirol-entrenamenduak eta -lehiaketak.

Profesionala edo erdi profesionala ez den federazio-lehiaketa eten egingo da, bai eta eskola-kiroleko lehiaketa ere.

Baimenduta daude federatutako edo eskoletako taldeen kirol-entrenamenduak, baina seiko taldeetan eta barkarka.

Joan gaitzke beste udalerrri batera partida bat jokatzera?

Lehiaketa profesionaletan edo erdi profesionaletan baino ez.

Zer ulertzen dugu kirolari erdi profesional diogunean?

Egutegi ofizialeko Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan eta Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariak dira, guztiak kategoría absolutuan. Atal honetan kategoría absolutuko maila goreneko bertoko kirol-lehiaketak sartzen dira.

Joan gaitzke kirol-jarduera bat egitera beste udalerrri bateko kiroldegira?

Bai, baldin eta udalerrri mugakidea bada.

Joan gaitzke beste udalerrri edo erkidego batzuetara jarduera zinegetikoak edo arrantza-jarduerak egitera?

Ez. Bi jarduera horiek bizitoki dugun udalerrrian edo mugakideetan baino ezingo dira egin.

GARRAIO PUBLIKOA

Gaueko zer ordotara arte egongo da garraio publikoa?

Hiru lurralde historiko bakoitza baino eremu gutxiagoko garraio publikoaren azken irteera 00:00etan izango da. Taxia edo gidaridun ibilgailua izan ezik.

Jan edo edan daiteke garraio publikoan?

Bidaia-denbora bi ordutik beherakoa bada, ezin da, baina bai edan.

Badago okupazio-mugarik garraio publikoan?



Ez, garraio publiko eta pribatuetan ibilgailuak duen plaza adina pertsona joan ahalko da, betiere maskara jantzita.

KULTURA-EREMUA

Sarrera bat dugu udalerritik kanpo egingo den kontzertu baterako. Joan gaitezke?

Bai, baldin eta jarduera udalerrri mugakidean egingo bada eta sarrerarekin behar bezala justifikatzen badugu.

BESTE BATZUK

Erre daiteke bide publikoan?

Bi metroko gutxieneko distantzia gordetzerik badago bakarrik.

Derrigorrezkoa da erabilera publikoko establezimendu eta lekuak aireztatzea?

Bai. Ahalik eta maizen aireztatu beharko dira, eta, gutxienez, egunean hiru aldiz.

Baimenduta al dago adinekoen egoitzetara joatea?

Bai, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren barruan, betiere zentroak berak baimendutako bisitak badira.

Baimenduta al dago espetxeetara joatea?

Bai, baina, horretarako, Espetxeetako Agintaritzak emandako baimen egokia beharko da.

EAETik kanpora mugitu ahalko da, baldin eta helmugako erkidegoak baimena ematen badu.

Baimenduta al dago ibilgailuen tailerretara eta kontzesionarioetara joatea?

Bai atzeratu ezin diren, derrigorrezkoak diren eta aurrez aurre egin behar diren kudeaketan kasuan.

Baimenduta al dago erlijio- edo kultu-zerbitzuetara joatea?

Bai, salbuespen gisa, bizitoki dugun udalerrian halakorik ez bada eta, betiere, hurbilen dagoen lekura.

Baimenduta al dago mugikortasuna udalerritik kanpora, saltokietan eta halal harategietan erosteko beharra dagoenean?

Bai. Bizitoki dugun udalerrian zerbitzu hori egon ezean, joan-etorriak egin ahalko dira zerbitzu hori duen eta gure udalerritik hurbilen dagoen udalerrira.

Joan gaitezke aireportura, geltokietara eta bestelakoetara pertsona baten bila?



Bai, edozein familiartekoren bila, bakarrik bizilekura bueltatzeko.

Bisita daitezke mendeko familiartekoak, desgaitasuna duten pertsonak edo pertsona bereziki kalteberak?

Ez. Haien etxera laguntzera eta zaintzera baino ezingo gara joan.

Baimenduta dago baratzeetan lan egiteko mugitzea?

Bai, bizitoki dugun udalerrian eta mugakideetan dauden baratzeetan.

Baimenduta al dago arrazoi sindikalengatik, alderdi politikoan, enpresa-elkartean eta antzekoen jarduerengatik lekualdatzea?

Bai. Erakunde-jardueratzat jotzen baitira.